

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Barkos Lehendakariak baieztatu du “egonkortasun ekonomikoa eta politikoa funtsezkoa ari dela izaten adierazle sozioekonomiko guztiak hobetzeko”

*Urte-amaierako mezuan nabarmendu du “Hitzarmenari eta Aurrekontuei esker, Nafarroa aurrera ari dela egiten arlo ekonomikoan eta sozialean”*

Ostirala, 2017.eko abenduak 29

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek [urte-amaierako mezuan](#) baieztatu du “egonkortasun ekonomikoa eta politikoa funtsezkoa ari dela izaten adierazle sozioekonomiko guztiak hobetzeko, batez ere Nafarroaren garapenerako eta etorkizunerako bi mugarri garrantzitsurekin bukatuko delako 2017. urtea: Estatuarekin Hitzarmen Ekonomikoa sinatzea eta Aurrekontuak onartzea”.



Barkos Lehendakaria, urte amaierako mezua grabatzeko unean.

Zehazki, Barkosek adierazi du “Nafarroak eta Estatuak bidezko akordio bat lortu dutela, errealitateari begirakoa eta solidarioa. Akordio hori funtsezkoa da Nafarroaren interes orokorrerako, gure eskumen-sistemako finantza- eta zerga-tresna garrantzitsuena baita, eta gure autogobernuaren adierazpen esanguratsuena baita. Akordio horretaz gain, Foru Komunitateak, beste urtebetez, 2018. urterako aurrekontuak izango ditu garaiz eta moduz”.

Aurrekontuei dagokienez, Lehendakariak adierazi du “joan den astean onartu genituen kontuei esker, duela bi urte eta erdi baino gehiago hasitako lehentasun-aldaketa indartuko dela, zeinaren bidez oinarrizko zerbitzu publikoak indartuko baitira, hala nola osasuna, hezkuntza eta mendekotasuna, eta, aldi berean, ekonomia eta enplegua sustatuko direla”.

### Desberdinen arteko elkarrizketaren eta adostasunaren ondoriozko egonkortasuna

Barkos Lehendakariaren ustez, “krisia hasi zenetik, garairik egonkorrena ari gara bizitzen Nafarroan, baina egonkortasun hori ez da ustekabekoa, ezta kasualitatea ere. Desberdinen arteko elkarrizketaren eta adostasunaren ondorio da. Akordioa lortzea, hain eguneroko gauza

bizitzako alderdi guztietan, ez da erraza, ahalegina eskatzen du, eta, askotan, amore eman behar izaten da, baina egia da, orobat, aberastu egiten gaituela, indartsuago egiten gaituela eta gizarte gisa aurrera egiteko aukera ematen digula”. Alde horretatik, Barkosek azpimarratu du “garrantzitsua dela desberdintasunak aitortzea elkarrekin zerbait lortzeko, ez elkarren aurka jartzeko, eta, hala, politikaren zeregin onena betetzeko: herritarren arazoak konpontzea. Politika etorkizun partekatua eraikitze bitarteko gisa; horretan saiatzen gara gu, behintzat”.

Alderdi ekonomikoei helduz, nabarmendu du “egonkortasun ekonomikoa eta politikoa funtsezkoa ari dela izaten adierazle sozioekonomiko guztiak hobetzeko. Nafarroako ekonomia % 3 baino gehiago ari da hazten; krisia hasi aurretik geneukan enpresa-bolumena berreskuratzen lehenak izan gara, Madrilekin batera; errenta bermatua jasotzen zutelarik enplegu bat lortu dutenen kopurua bikoiztu egin da 2014tik; % 40,9 handitu da arreta eman diegun pertsonen kopurua; eta osasun-zerbitzu onenak dituen erkidegoa gara”.

### **Enplegua, erronka nagusia**

Lehendakariak baieztatu duenez, “gaur, Nafarroako egoera ekonomikoa, politikoa eta soziala duela urtebetekoa baino hobea da, eta baditugu arazoak baikorrak izateko. Egia da, ordea, zifra makroekonomikoez ez dutela ezertarako balio haien eraginak ez badituzte nafar guzti-guztiek nabaritzen egunerokoan. Ez dute ezertarako balio hasi dugun suspertzearen eraginak ez badira ikusten, adibidez, enpleguan: kalitateko enpleguan”.

Alde horretatik, jarraitu du esaten “langabezia dela krisiaren zauririk handiena. Inkesta guztietan, langabezia da gizartearen kezkarik handiena, eta horrek izan behar du gure erronka kolektibo handiena. Nafarroan, bide onetik goaz, enpleguarentzat urterik onena izan baita aurtengoa duela hamar urte baino gehiagoz geroztik. Enplegua sortzen dugu. Izan ere, azken urtean, 9.025 kotizatzaile berreskuratu ditu Gizarte Segurantzak. Hala ere, ez da nahikoa, bistan denez. Lanpostu bat lortzeak ez du ezertarako balio horrekin ez badira bermatzen bizi-baldintzak eta ez bada etorkizuneko proiektu bat eraikitzen”.

Barkosek aipamen berezia egin die gazteei, eta gogorarazi du ezen, “denbora luzez, gure gazteek, trebakuntza bikaina izanik, joan egin behar izan dutela etxetik kanpo aukera bat bilatzeko. Hori ezin dugu onartu. Gure gazteen talentua behar dugu Nafarroa indartsuago eta oparago bihurtzeko. Eta, horretarako, haientzat aukerarik onenak sortzeko egin behar dugu lan”.

### **Bizikidetza eta kohesioa**

Barkosek azpimarratu du 2018. urteak “aukera paregabea ematen digula gutako bakoitzaren egunerokoa hobetuko duten hainbat alderdi lantzeko, oraindik bai baitugu zer egin lortu nahi dugun Nafarroa solidarioagoa, integratzaileagoa baina baita modernoagoa eta lehiakorragoa ere eraikitzeko”.

Horrez gain, nabarmendu du “urte berriak bizikidetzarako eta kohesiorako aukera ere izan behar duela. Bizikidetza, aniztasunean eta pluraltasunean oinarritua. Aniztasuna aberastasun pluralaren bereizgarri gisa, Nafarroak beti harrotasunez eutsi dion ikurretako bat. Akordioa, egonkortasuna, bizikidetza, kohesioa eta ilusioa. Horiek guztiak dira funtsezkoak gizarte gisa izango dugun etorkizuna eraikitzeko”.

Azkenik, Lehendakariak “onena opa die guztiei datorren urte berrirako”, bereziki “egun hauetan okerren pasatzen ari direnei. Badakit familia guztietan falta dela norbait eta daudela kezkak, bai eta ilusioak ere, zeinak biziagoak eta nabarmenagoak egiten baitira egun hauetan”.